



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

EBAZPENA, 2015eko uztailaren 27koa, Kudeaketa Ekonomikoaren zuzendariarena, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2014ko urriaren 22ko Aginduaren babesean beka eman zaien ikasleen behin betiko zerrenda argitara ematen duena. Agindu horrek 2014-2015 ikasturterako unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-laguntzetarako deialdia egin zuen.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2014ko urriaren 22ko Aginduaren bidez, unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko 2014-2015 ikasturterako ikasketa-laguntzetarako deialdia egin zen.

Goian adierazitako deialdi- aginduaren 25 artikulua xedatu duenarekin bat etorriz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- 2014-2015 ikasturterako unibertsitateaz kanpoko ikasleak eskolatzeko ikasketa-laguntzetarako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2014ko urriaren 22ko Aginduaren arabera beka eman zaien ikasleen zerrendak argitara daitezen agintzea, euskadi.net-eko egoitza elektronikoko iragarki-taulan.

Zerrenda horiek aipatutako iragarki-taula elektronikoan erakutsiko dira, 2015eko uztailaren 27etik aurrera. Hortik eta hilabeteko epean gorako errekurtsioa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 27a.
KUDEAKETA EKONOMIKOAREN ZUZENDARIA.

AMAIA JAUREGIBERRI/GOENAGA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

RESOLUCIÓN de 27 de julio de 2015, de la Directora Gestión Económica, por la que se publica la relación definitiva de los alumnos a los que les ha sido concedida beca, al amparo de la Orden de 22 de octubre de 2014 de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura, por la que se convocan ayudas al estudio para la escolarización de alumnos de niveles no universitarios para el curso académico 2014-2015

Por Orden de 22 de octubre de 2014 de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura, se convocaron ayudas al estudio para la escolarización de alumnos de niveles no universitarios para el curso académico 2014-2015.

De conformidad con lo establecido en el artículo 25 de la Orden de Convocatoria arriba indicada,

RESUELVO:

Primero.- Ordenar la publicación en el tablón de la sede electrónica de euskadi.net, de los listados de solicitantes a los que se les concede la ayuda al estudio de acuerdo a la Orden de convocatoria de 22 de octubre de 2014 de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura, de ayudas al estudio para la escolarización de alumnos de niveles no universitarios para el curso académico 2014/2015

Dichos listados se expondrán en el citado tablón electrónico a partir del 27 de julio de 2015, desde esta fecha y en el plazo de un mes se podrá interponer recurso de alzada ante la Viceconsejera de Administración y Servicios.